4. Cuando los bienes o derechos dejaren de ser necesarios para los fines previstos se solicitará y acordará por las entidades y órganos previstos para la afectación y adscripción la desafectación o desadscripción.

5. Las actuaciones a que se refiere este Título realizadas de forma expresa surtirán efecto a partir de la recepción formal de los bienes o derechos por el Departamento o entidad receptora. La recepción formal de los bienes o derechos se podrá efectuar, bien mediante acta de entrega suscrita por los representantes designados por los Departamentos o entidades que reciban y entreguen los bienes o derechos, bien mediante acta de toma de posesión levantada unilateralmente por el Departamento competente en materia de patrimonio, cuando se trate de actuaciones en las que este Departamento deba intervenir.

CAPÍTULO II DE LA AFECTACIÓN Y DESAFECTACIÓN

Artículo 50. Concepto y efectos de la afectación

1. La afectación destina un bien o un derecho a un uso general o a la prestación de un servicio público de la competencia del Territorio Histórico de Bizkaia.
2. La afectación produce la integración del bien o derecho en el dominio público.
3. Los bienes y derechos afectados se utilizarán de acuerdo con el fin previsto.

Artículo 51. Contenido del acto de afectación expresa y reflejo en el Inventario de las no expresas

1. La afectación expresa indicará, como mínimo, el bien o derecho afectado, el fin a que se destina y la circunstancia de quedar integrado en el dominio público,
2. La anotación en el Inventario General de Bienes y Derechos del Patrimonio del Territorio Histórico de Bizkaia de las afectaciones producidas de forma tácita o implícita o presunta indicará como mínimo el bien o derecho afectado, el fin a que se destina y los hechos o actuaciones que originaron la afectación tácita o implícita.

4. Ondasun-eskubideak dagoeneko ez direnean beharrezkoak aurreikusi diren xedeetarako, orduan, xedemate-rako eta atxikipenerako zehazten diren erakunde eta organoek ondasun eta eskubide horien jaregitea edo desatxikipena eskatu eta erabakiko dute.

5. Titulu honetan aipatzen diren jardunak beren beregi egiten badira, sail edo erakunde hartzaileek ondasunen edo eskubideen harrera formala egiten duten unetik bertatik izango dituzte ondoreak. Ondasunen edo eskubideen harrera formala modu bitan egin daiteke: batetik, emate-aktaren bidez, eta akta hori ondasunak edo eskubideak jasotzen eta ematen dituzten sailek edo erakundeek izendatzen dituzten ordezkariak izenpetu behar dituzte; bestetik, ondare arloan eskuduna den sailaren esku hartzea behar duten jardunak direnean, edukitza hartzeko aktaren bidez egin daiteke harrera, eta akta hori aldeba-karrez jasoko du sail horrek.

II. KAPITULUA XEDEMATEA ETA JAREGITEA

50. artikulua. Xedematearen kontzeptua eta ondoreak

1. Xedemateak erabilera orokor baterako edo Bizkaiko Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu publiko bat emateko gordeko du ondasun edo eskubide bat.
2. Xedemateak ondasun edo eskubidea jabari publikoan sartzea dakar.
3. Xedemandako ondasun-eskubideak aurreikusitako xedearen arabera erabiliko dira.

51. artikulua. Xedemate-egintza adierazien edukia eta adieraziak ez diren xedemateak inbentarioan islatzea

1. Xedemate adieraziak erakutsi behar du, gutxienez, zein den xedemandako ondasuna edo eskubidea, zein xedetarako erabiliko den eta ondasun edo eskubide hori jabari publikoan sartuta geratuko dela.
2. Isilpean, inplizituki edo presuntziaz ematen diren xedemateak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ondareko Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Nagusian sartzen direla adierazten duen idatzoharrak erakutsiko du, gutxienez, zein den xedemandako ondasuna edo eskubidea, zein xedetarako erabiliko den eta zein gertaera edo jardunek eragin zuten isilpeko xedematea edo xedematea inplizitua.

Artículo 52. Afectaciones tácitas o implícitas y presuntas

Se produce la afectación tácita o implícita o la presunta en los siguientes supuestos:

- a) La utilización de hecho pública y notoria de bienes o derechos del Patrimonio del Territorio Histórico de Bizkaia para un uso o un servicio público, durante el plazo ininterrumpido de un año.
- b) La adquisición de bienes o derechos por expropiación forzosa para un uso o un servicio público, en el que los bienes o derechos adquiridos se entenderán afectados al fin determinante de la declaración de utilidad pública o interés social.
- c) La adquisición de bienes o derechos por cualquier medio previsto en el ordenamiento jurídico en el que conste la finalidad de ser destinado a un uso o un servicio público.
- d) La adquisición de bienes o derechos por usucapión, cuando los actos posesorios que han determinado la prescripción adquisitiva hubiesen vinculado el bien o derecho a un uso o un servicio público, sin perjuicio de los derechos adquiridos sobre ellos por terceras personas al amparo de normas de derecho privado.
- e) La aprobación por la Diputación Foral de programas o planes de actuación general, o proyectos de obras o servicios, cuando de ellos resulte la vinculación de bienes o derechos determinados a usos o servicios públicos.
- f) La adquisición de bienes y derechos en virtud de transferencia y cesión administrativa.
- g) La adquisición de bienes muebles necesarios para el desenvolvimiento de los servicios públicos o para la decoración de las dependencias oficiales.

Artículo 53. Afectaciones concurrentes

1. Los bienes y derechos demaniales podrán ser objeto de afectación a más de un uso o servicio público del Territorio Histórico de Bizkaia siempre que los diversos fines no resulten incompatibles.
2. La resolución que acuerde la afectación concurrente determinará las facultades y obligaciones que corresponden al órgano responsable de cada uso o servicio.

52. artikulua. Isilpeko xedemateak edo inplizituak eta presuntziozko xedemateak

Ondoko kasuetan gertatuko da isilpeko xedematea edo inplizitua edo presuntziozko xedematea:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoaren ondareko ondasunak edo eskubideak benetan eta modu publiko eta nabarian erabilera edo zerbitzu publikorako erabiltzen direnean, urtebetean zehar eta etenik gabe.
- b) Ondasunak edo eskubideak nahitaezko desjabeztearen bitartez eskuratzen direnean erabilera edo zerbitzu publikorako; eskuratu diren ondasun edo eskubideak herri onurako edo gizarte intereseko adierazpena erabaki zuten helbururako xedemandakotzat joko dira.
- c) Ondasunak edo eskubideak ordenamendu juridikoan xedatzen den moduetako edozein erabilita eskuratzen direnean, eta eskuraketan jasota geratu behar da ondasuna edo eskubidea erabilera edo zerbitzu publikorako erabiliko dela.
- d) Ondasunak edo eskubideak usukapio bidez eskuratzen direnean, eskuratzeko preskripzioa erabaki duten edukitza-egintzek ondasuna edo eskubidea erabilera edo zerbitzu publiko batera lotu dutenean; hirugarren pertsonak zuzenbide pribatuko arauen babesean ondasun edo eskubide horien gainean eskuratutako eskubideak gorabehera.
- e) Foru Aldundiak jarduteko programa edo plan orokorrak edo obren edo zerbitzuen proiektuak onartzen dituenen, horien ondorioa ondasun eta eskubide jakin batzuk erabilera edo zerbitzu publikoei lotzea bada.
- f) Ondasunak edo eskubideak transferentzia eta administrazio-lagapena dela bide eskuratzen direnean.
- g) Zerbitzu publikoek lan egiteko edo bulego ofizialak dekoratzeko beharrezkoak diren ondasun higigarriak eskuratzen direnean.

53. artikulua. Xedemate konkurrenteak

1. Ondasun eta eskubide demanialak Bizkaiko Lurralde Historikoko erabilera edo zerbitzu publiko bat baino gehiagorako xedeman daitezke, betiere bakoitzaren xedeak bateraezinak ez badira.
2. Xedemate konkurrentea erabakitzen duen ebazpenak zehaztu egingo ditu erabilera edo zerbitzu bakoitzaren ardura duen organoari dagozkion ahalmenak eta betebeharrak.

Artículo 54. Concepto y efectos de la desafectación

1. Los bienes y derechos de dominio público perderán esta condición, adquiriendo la de patrimoniales, en los casos en que se produzca su desafectación por dejar de destinarse a un uso o un servicio público.
2. La desafectación, salvo que se refiera a afectaciones concurrentes, determina la incorporación del bien al dominio privado de la Administración; sin perjuicio, en su caso, del derecho de reversión en los términos previstos en las leyes.
3. La incorporación en el dominio privado de bienes y derechos desafectados requiere para su efectividad declaración expresa de desafectación o anotación del cambio de calificación en el Inventario General de Bienes y Derechos.

Artículo 55. Forma y procedimiento de desafectación

1. Salvo en los supuestos previstos en el apartado tercero del presente artículo para los bienes muebles, la desafectación deberá hacerse siempre de forma expresa, pudiendo incorporarse la declaración en los acuerdos de cesión y enajenación.
2. El procedimiento se ajustará a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y a las siguientes normas:
 - a) El acuerdo de incoación del expediente de desafectación del bien o derecho del dominio público deberá expresar las razones que justifican la innecesidad del bien o derecho para el cumplimiento de los fines determinantes de su desafectación.
 - b) El acuerdo de incoación del procedimiento de desafectación se publicará gratuitamente en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin perjuicio de la posibilidad de utilizar adicionalmente otros medios de difusión. Transcurrido dicho plazo, sin alegación alguna, el acuerdo se considerará definitivo.
 - c) Anotación del cambio de calificación jurídica del bien o derecho en el Inventario General de Bienes y Derechos del Patrimonio de Territorio Histórico de Bizkaia.
3. En el caso de bienes muebles, los acuerdos de enajenación y cesión gratuita llevarán implícita la desafectación de los mismos.

54. artikulua. Xedematearen kontzeptua eta ondoreak

1. Jabari publikoko ondasun eta eskubideek izaera hori galduko dute, eta ondarezkooa lortu, ondasun eta eskubide horiek jaregin egiten direnean, erabilera edo zerbitzu publiko baterako dagoeneko erabiltzen ez direlako.
2. Jaregiteak, xedemate konkurrenteei dagokienean izan ezik, ondasuna Administrazioaren jabari pribatuan sartzeari determinatuko du; nolahi ere, eta hala badagokio, itzulketa-eskubidea egon daiteke, legeak zehazten dituen baldintzetan.
3. Jaregindako ondasunak eta eskubideak jabari pribatuan sartzeari eraginkorra izan dadin, jaregitearen adierazpen adierazia behar da edo kalifikazio-aldaketa idatzohar-tu behar da Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Nagusian.

55. artikulua. Jaregiteko era eta prozedura

1. Artikulu honetako hirugarren paragrafoan ondasun higigarrientzat aurreikusten diren balizkoetan izan ezik, jaregitea beren beregi egin behar da beti, eta lagapen- eta besterentze-erabakiei adierazpena erants dakieke.
2. Prozedura Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren eta ondoko arauen arabera egingo da:
 - a) Jabari publikoko ondasuna edo eskubidea jaregiteko espedientea hasteko erabakian adierazi egin behar da zein arrazoi dauden justifikatzeko ondasun edo eskubide hori ez dela beharrezkoa jaregitea erabaki duten xedeak betetzeko.
 - b) Jaregite-prozedura hasteko erabakia dohain argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean; nolahi ere, beste komunikabide batzuk ere erabil daitezke. Epe hori igarota, eta inolako alegaziorik izan ez bada, erabakia behin betikotzat joko da.
 - c) Ondasunak edo eskubideak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ondareko Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Nagusian duen kalifikazio juridikoa aldatu izanaren idatzoharra.
3. Ondasun higigarrien kasuan, besterentzeko eta dohaineko lagapenerako erabakiek ondasun horiek jaregitea daramate inplizitu.

CAPÍTULO III DE LA MUTACIÓN DEMANIAL Y SU- CESIÓN

Artículo 56. Mutación demanial y sucesión entre organismos públicos

1. La mutación demanial consistente en la desafectación de un bien o derecho con simultánea afectación a otro uso público o servicio público titularidad de las entidades comprendidas en el artículo 1.2 de la presente Norma Foral, no supone cambio de calificación jurídica del bien o derecho, se formalizará expresamente y reflejará el cambio de afectación y, en su caso, adscripción que conlleve.

En los supuestos de creación, supresión o modificación de los Departamentos o entidades a que se refiere el artículo 1.2 de la presente Norma Foral, el cambio de atribución de funciones no supone novación de la causa determinante de la afectación y se entenderá que los bienes continúan afectos a los mismos fines sin necesidad de declaración expresa. El cambio de adscripción del bien o derecho, en el caso de no formalizarse expresamente, se entenderá producido de forma implícita en la disposición orgánica o funcional de la que trae causa, si bien, deberá reflejarse en el Inventario General de Bienes y Derechos, cuando afecte a bienes o derechos incluidos en él.

2. En los casos en que una disposición normativa declare una titularidad de bienes o derechos de dominio público a favor de entidad de naturaleza pública distinta de la que viniera siendo titular, en ambos casos de las previstas en el artículo 1.2 de la presente Norma Foral, la formalización del traspaso de titularidad de dichos bienes o derechos, sin cambio de calificación jurídica, ni afectación, se formalizará conforme a lo que dispongan las normas declarativas o atributivas de la titularidad y, en su defecto, por Decreto de la Diputación Foral.

3. Los bienes y derechos demaniales de las entidades comprendidas en el artículo 1.2 de la presente Norma Foral podrán afectarse a determinados usos o servicios públicos competencia de otras Administraciones o entidades de naturaleza pública, en los términos y condiciones que se establezcan en el correspondiente Acuerdo de la Diputación Foral. Este supuesto de mutación no alterará la titularidad de los bienes y derechos, ni su carácter demanial.

III. KAPITULUA MUDANTZA DEMANIALA ETA ONDO- RENGOTZA

56. artikulua. Mudantza demaniala eta herri- erakundeen arteko ondorengotza

1. Mudantza demaniala da ondasun edo eskubide bat jaregitea eta, aldi berean, foru arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeen titulartasuneko erabilera publiko edo zerbitzu publiko baterako xedematea; mudantzak ez du ekarriko ondasunaren edo eskubidearen kalifikazio juridikoa aldatzerik, beren beregi formalizatuko da eta xedematearen aldaketa islatuko du eta, hala bada gokio, horrek dakarren atxikipen-aldaketa ere bai.

Foru arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren sailak edo erakundeak sortu, ezabatu edo aldarazi egiten direnean, eginkizunen eratxikipena aldatzeak ez dakar xedematea erabaki duen arrazoiaren nobazioa, eta ondasunak xede beretarako xedemanda daudela ulertuko da, inolako adierazpen adieraziren beharrik gabe. Ondasunaren edo eskubidearen atxikipenaren aldaketa, beren beregi formalizatzen ez bada, modu inplizituan gertatu dela ulertuko da aldaketa ematen duen xedapen organiko edo funtzionalean; dena den, aldaketa Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Nagusian islatu behar da, Inbentarioan sartuta dauden ondasun-eskubideak ukitzen baditu.

2. Xedapen arau-emaille batek jabari publikoko ondasunen edo eskubideen titulartasuna deklaritzen badu titular izan ohi den erakundearen alde barik, izaera publikoko beste erakunde baten alde —batak zein besteak foru arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeak izan behar dute—, ondasun edo eskubideon titulartasunaren eskualdaketa —kalifikazio juridikoaren aldaketarik eta xedematerik gabe— titulartasuna adierazteko edo eratxikitzeke arauak xedatzen dutenaren arabera egingo da edo, horrelakorik ez badago, Foru Aldundiaren dekretu bidez.

3. Foru arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeen ondasun eta eskubide demanialak beste administrazio batzuen edo izaera publikoko erakunde batzuen eskumeneko zenbait erabilera edo zerbitzu publikotarako xedeman daitezke, Foru Aldundiak horretarako hartu behar duen erabakian zehazten diren zehaztapen eta baldintzekin. Mudantza kasu horrek ez du aldatuko ondasun-eskubideen titulartasuna, ez eta horien izaera demaniala ere.

CAPÍTULO IV DE LA ADSCRIPCIÓN Y DESADSCRIPCIÓN

Artículo 57. Concepto y efectos de la adscripción

1. La adscripción confiere al Departamento o entidad a cuyo favor se realiza el uso, administración, mantenimiento y conservación de los bienes o derechos adscritos, salvo aquellas facultades que se encuentren atribuidas expresamente a otro órgano y sin perjuicio de las autorizaciones requisitos o condiciones que en desarrollo de esta Norma Foral puedan establecerse.
2. En ningún caso la adscripción supone cambio de titularidad ni de calificación jurídica de los bienes o derechos.
3. Las facultades derivadas de la adscripción se ejercerán conforme a la naturaleza del bien o derecho, a los fines que motivan la adscripción y a las normas técnicas aplicables.

Artículo 58. Objeto y ámbito de la adscripción

1. La adscripción de los bienes y derechos de la titularidad de la Diputación Foral de Bizkaia puede tener por objeto bienes y derechos del dominio público o privado, y podrá realizarse a favor de los Departamentos integrantes de la misma, de las entidades comprendidas en el artículo 1.2 de la presente Norma Foral y de las Sociedades Forales y demás entidades de naturaleza privada que forman parte del Sector Público del Territorio Histórico de Bizkaia.

Los bienes y derechos de la titularidad de entidades previstas en el artículo 1.2 de la presente Norma Foral distintas de la Diputación Foral de Bizkaia podrán, igualmente, ser adscritos a los Departamentos en que se estructura orgánicamente la entidad titular, a las demás entidades del artículo 1.2 y a las Sociedades forales y demás entidades de naturaleza privada que forman parte del Sector Público del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Respecto de los bienes y derechos de dominio privado, la adscripción llevará implícita la afectación del bien o derecho a un uso o servicio público de titularidad del destinatario de aquélla y pasará a integrarse en el dominio público.
3. En el caso de bienes o derechos adscritos a entidades de naturaleza jurídico-privada, para el ejercicio de las potestades administrativas de protección, así como las relativas a autorizaciones y concesiones demaniales se estará a lo dispuesto en el artículo 20.5 y en el apartado 3 del artículo 65 respectivamente de la presente Norma Foral.

IV. KAPITULUA ATXIKIPENA ETA DESATXIKIPENA

57. artikulua. Atxikipenaren kontzeptua eta ondoreak

1. Atxikipenak atxikitako ondasun eta eskubideen erabilera, administrazioa, mantentzea eta artapena ematen dizkio atxikipenaren onuradun den sailari edo erakundeari, beste organo batek beren beregi eratzikita dituen ahalmenak izan ezik, eta foru arau hau garatzeko ezar litezkeen baimen, betekizun edo baldintzak gorabehera.
2. Atxikipenak ez du inola ere ekarriko ondasunen edo eskubideen titulartasuna edo kalifikazio juridikoa aldatzerik.
3. Atxikipenaren ondoriozko ahalmenak ondasunaren edo eskubidearen izaeraren, atxikipena arrazoitu duten xedeen eta aplikagarriak diren arau teknikoaren arabera erabiliko dira.

58. artikulua. Atxikipenaren xedea eta eremua

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko ondasun-erabilerekin atxikipenak jabari publiko edo pribatuko ondasunak eta eskubideak izan ditzake helburu. Atxikipena ondokoen alde egin daiteke: Aldundia osatzen duten sailen, foru arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeen eta Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoa osatzen duten foru sozietateen eta izaera pribatuko gainerako erakundeen alde.

Era berean, foru arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeen titulartasuneko ondasun-erabilerekin —Bizkaiko Foru Aldundiarenak izan ezik— ondokoei atxiki dakizkieke: erakunde titularraren egitura organikoa eratzen duten sailei, 1.2. artikuluko gainerako erakundeei eta Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoa osatzen duten foru sozietateei eta izaera pribatuko gainerako erakundeei.

2. Jabari pribatuko ondasun-erabilerekin direla eta, horien atxikipenak inplizituki dakar ondasuna edo eskubidea atxikipenaren hartzailearen titulartasuneko erabilera edo zerbitzu publiko bati atxikitzea, eta ondasun edo eskubide hori jabari publikoan sartuko da.
3. Izaera juridiko pribatuko erakundeei atxikitako ondasunen edo eskubideen kasuan, babesari lotutako administrazio-ahalak zein baimen eta emakida demanialeki lotutako ahalak erabiltzeko, foru arau honetako 20. artikuluko 5. paragrafoan eta 65. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoari jarraituko zaio, hurrenez hurren.

4. El Departamento o entidad que tenga adscrito el bien o derecho comunicará a la entidad propietaria o titular todas las incidencias que afecten a dicha propiedad o titularidad del bien o derecho. Cuando la propiedad o titularidad del bien o derecho corresponda a la Diputación Foral de Bizkaia, dicha comunicación se realizará al Departamento competente en materia de patrimonio.

Artículo 59. Adscripción expresa

La adscripción expresa indicará la entidad a la que se adscribe, los bienes o derechos que son su objeto y los concretos fines a los que se destina el bien o derecho. Cuando sea posible, la adscripción expresa formará parte del contenido del acto de afectación.

Artículo 60. Adscripciones tácitas e implícitas y presuntas

Se produce la adscripción tácita e implícita en los siguientes supuestos:

- a) Cuando se produce la afectación tácita o implícita o presunta, entendiéndose adscritos los bienes al Departamento o entidad competente en relación con el destino del bien o derecho.
- b) En los supuestos de adquisición de bienes muebles por los Departamentos o entidades comprendidas en el artículo 1.2 de la presente Norma Foral, entendiéndose adscritos al adquirente.
- c) En el cambio de adscripción contemplado en el artículo 56.2 de la presente Norma Foral.

Artículo 61. Desadscripción expresa

1. Se acordará la desadscripción cuando los bienes o derechos dejaren de ser necesarios para el cumplimiento de los fines que dieron lugar a la adscripción.

2. Cuando los bienes o derechos no fuesen destinados al fin previsto dentro del plazo que, en su caso, se fije, dejen de serlo posteriormente, o se incumpliese cualesquiera otras condiciones establecidas para la utilización, el órgano competente previo requerimiento al Departamento o entidad al que se adscribieron los bienes o derechos para que se ajuste en su uso a lo señalado en el acuerdo de adscripción, podrá proceder a la desadscripción.

3. En el caso de desadscripción por incumplimiento del fin o de las condiciones de utilización, el titular del bien o derecho podrá exigir el valor de los detrimentos o deterioros actualizado al momento en que se produzca la desadscripción, o el coste de rehabilitación.

4. Ondasuna edo eskubidea atxikita duen sailak edo erakundeak ondasun edo eskubide horren jabea edo titularra den erakundeari jakinarazi behar dizkio jabetza edo titulartasun horri eragiten dioten gertakari guztiak. Ondasun edo eskubidearen jabetza edo titulartasuna Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionean, jakinarazpen hori ondare arloan eskuduna den sailari egingo zaio.

59. artikulua. Atxikipen adierazia

Atxikipen adieraziak erakutsiko dio ondasuna edo eskubidea atxikitzen zaion erakundeari zein diren atxikipenaren xede diren ondasunak eta eskubideak eta zein erabilera zehatzetarako erabiliko diren. Posible denean, atxikipen adierazia xedemate-egintzaren edukiaren parte izango da.

60. artikulua. Isilpeko atxikipenak eta inplizituak eta presuntziozko atxikipenak

Isilpeko atxikipena edo inplizitua ondoko balizkoetan gertatuko da:

- a) Isilpeko xedematea edo inplizitua edo presuntziozkoa gertatzen denean; ondasunak ondasunaren edo eskubidearen xedearen arabera eskuduna den sailari edo erakundeari atxikita daudela ulertuko da.
- b) Foru arau honetako 1.2. artikuluan jasotzen diren sailak edo erakundeek ondasun higigarriak eskuratzen dituzten kasuetan; ondasunok erosleari atxikita daudela ulertuko da.
- c) Foru arau honetako 56.2. artikuluan aurreikusten den atxikipen-aldaketan.

61. artikulua. Desatxikipen adierazia

1. Desatxikipena erabakiko da ondasun-eskubideak dagoeneko ez direnean beharrezkoak atxikipena ekarri zuten helburuak betetzeko.

2. Ondasunak edo eskubideak ez direnean erabiltzen aurreikusi zen xederako kasu bakoitzean zehazten den epean, bada, orduan, epe hori igaro eta gero erabiltzen ez badira, edo erabilerarako beste edozein baldintza betetzen ez bada, organo eskudunak desatxikipena egin ahal izango du, baina, aurretik, errekerimendua egin behar dio ondasunak edo eskubideak atxiki zitzaizkion sailari edo erakundeari, ondasun-eskubideok atxikipen-erabakian adierazitakoarekin bat erabil ditzan.

3. Desatxikipena gertatzen bada erabilerarako xedea edo baldintzak bete ez direlako, ondasunaren edo eskubidearen titularrak eragin zaizkion kalteen eta narriaduren balioa eskatu ahal izango du, desatxikipena gertatzen den unera eguneratuta, edo, bestela, birgaitzearen kostua eska dezake.

TÍTULO V OTRAS FORMAS DE USO Y APROVECHAMIENTO DE LOS BIENES DEMANIALES

CAPÍTULO I DEL TÍTULO HABILITANTE Y RÉGI- MEN DE UTILIZACIÓN DE LOS BIE- NES DEMANIALES

Artículo 62. Necesidad de título habilitante y régimen de las autorizaciones y concesiones

1. Nadie puede, sin título que lo autorice otorgado por el órgano competente, ocupar bienes de dominio público o utilizarlos en forma que exceda el derecho de uso que, en su caso, corresponde a todos.

2. Los órganos responsables de la tutela y defensa del dominio público vigilarán el cumplimiento de lo establecido en el apartado anterior y, en su caso, actuarán contra quienes, careciendo de título, ocupen bienes de dominio público o se beneficien de un aprovechamiento especial sobre ellos, a cuyo fin ejercerán las potestades establecidas en esta Norma Foral.

3. Las autorizaciones y concesiones sobre bienes de dominio público se registrarán en primer término por la legislación especial reguladora de aquéllas y, a falta de normas especiales o en caso de insuficiencia de éstas, por las disposiciones de la presente Norma Foral.

Artículo 63. Régimen de utilización

Los bienes de dominio público quedan sujetos al siguiente régimen de utilización:

- a) La utilización de los bienes de uso público se rige por las disposiciones de este Título.
- b) La utilización de los bienes en los que se alojen servicios, oficinas o dependencias, así como la de los destinados a la prestación de un servicio público, se supeditará a lo dispuesto, en su caso, en las disposiciones especiales de utilización o funcionamiento del servicio y, subsidiariamente, se regirá por el presente Título.

V. TITULUA ONDASUN DEMANIALEN ERA- BILERARAKO ETA APRO- BETXAMENDURAKO BESTE ERA BATZUK

I. KAPITULUA GAITZEN DUEN TITULUA ETA ONDA- SUN DEMANIALEN ERABILERA- ARAUBIDEA

62. artikulua. Gaitzen duen tituluaren beharra eta baimenen eta emakiden araubidea

1. Inork ezin du jabari publikoko ondasunik okupatu edo ondasunok denoi dagokigun —hala denean— erabilera-eskubidea gainditzen duen moduan erabili, horretarako baimentzen duen titulurik ez badu, organo eskudunak egiletsitakoa.

2. Jabari publikoaren tutoretzaren eta defentsaren ardura duten organoek aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen dela zainduko dute, eta, beharrezkoa denean, titulurik izan gabe jabari publikoko ondasunak okupatzen dituzten edo ondasunon gaineko aprobetxamendu bereziari etekina ateratzen diotenen aurka joko dute; horretarako, foru arau honetan ezartzen diren ahalak erabiliko dituzte.

3. Jabari publikoko ondasunen gaineko baimenen eta emakiden arauketari dagokionez, lehenengo, baimen eta emakidok arautzen dituen legedi berezia aplikatuko da, eta, ondoren, arau berezirik ez badago edo arauok nahikoak ez badira, foru arau honetako xedapenak.

63. artikulua. Erabilera-araubidea

Jabari publikoko ondasunak ondoko erabilera-araubidearen pean daude:

- a) Jabari publikoko ondasunen erabilera titulu honetako xedapenek eraenduko dute.
- b) Zerbitzuak edo bulegoak hartzen dituzten ondasunen erabilera zein zerbitzu publikoa ematera zuzendutako ondasunen erabilera, beharrezkoa bada, zerbitzuaren erabilerarako edo funtzionamendurako xedapen berezietan xedatutakoaren menpean jarriko da, eta, modu subsidiarioan, titulu honetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Artículo 64. Tipos de uso de los bienes de uso público

En la utilización de los bienes de uso público se considera:

- a) Uso común: el que corresponde por igual y de forma indistinta a todos los ciudadanos, de modo que el uso de unos no impide el de los demás interesados y se estimará:
 - General: cuando no concurren circunstancias singulares.
 - Especial: cuando el uso implica un aprovechamiento especial del dominio público que, sin impedir el uso común, supone la concurrencia de circunstancias, tales como la peligrosidad o intensidad del mismo, preferencia en casos de escasez, la obtención de una rentabilidad singular u otras semejantes, que determinan un exceso de utilización sobre el uso que corresponde a todos o un menoscabo de éste.
- b) Uso privativo: el que determina la ocupación de una porción del dominio público, de modo que se limita o excluye la utilización del mismo por otros interesados.

Artículo 65. Títulos habilitantes

1. El uso común general no está sujeto a autorización, podrá realizarse libremente y no tiene otras limitaciones que las que se derivan del uso por las demás personas, del respeto a la naturaleza de los bienes y su conservación, así como, del obligado sometimiento a las reglas de policía e instrucciones dictadas para promover su ordenada utilización.
2. El uso común especial está sujeto a autorización, salvo cuando su duración inicial exceda de cinco años, en cuyo caso requerirá concesión administrativa.
3. El uso privativo requiere el previo otorgamiento de un título adecuado a su naturaleza, de conformidad con las siguientes reglas:
 - a) Cuando la ocupación se efectúe únicamente con instalaciones desmontables o bienes muebles y con una duración inicial no superior a cinco años estará sujeto a autorización.
 - b) Cuando la ocupación se efectúe con obras o instalaciones fijas o por plazo inicial superior a cinco años deberá estar amparada por concesión administrativa.

64. artikulua. Erabilera publikoko ondasunen erabilera-motak

Erabilera publikoko ondasunen erabilerari dagokionez ondokoak ulertzen dira:

- a) Erabilera erkidea: erabilera berdin dagokie herritar guztiei; hortaz, batzuek erabiltzeak ez du eragotziko gainerako interesdunek ere erabiltzea; erabilera hori honela sailkatuko da:
 - Orokorra: inguruabar berezirik gertatzen ez deanean.
 - Berezia: erabilerak jabari publikoaren aprobetxamendu berezia dakarrenean eta hark, erabilera erkidea eragotzi gabe, zenbait inguruabar agertzea dakarrenean (esaterako, arriskugarritasuna edo arrisku horren intentsitatea, lehentasuna eskasia dagoenean, errentagarritasun berezia lortzea edo antzeko beste batzuk), eta inguruabar horiek denoi dagokigun erabileraren gehiegizko erabilera dakartenean edo denon erabilerarako kaltea dakartenean.
- b) Bakarreko erabilera: jabari publikoaren zati bat okupatzen da; hortaz, zati hori beste interesdun batzuek erabiltzea mugatu edo alde batera uzten da.

65. artikulua. Gaitzen duten tituluak

1. Erabilera erkide orokorrak ez du baimenik behar, modu askean erabil daiteke, eta dituen muga bakarrik dira: gainerako pertsonak egiten duten erabileraren ondoriozko mugak, ondasunen izaeraren errespetuaren eta ondasun horien zaintzaren ondoriozko mugak, eta erabilera hori ordenatua izateko emandako garbitasun-arauen eta aginduen ondoriozko mugak.
2. Erabilera erkide bereziak baimena behar du, salbu eta erabilera horren hasierako iraupena bost urtetik gorakoa bada: kasu horretan, administrazio-emakida behar da.
3. Bakarreko erabilerak, aurretik, erabilera horren izaerarako egokia den titulua egilestea behar du; titulu horrek arau hauek bete behar ditu:
 - a) Okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin bakarrik egiten bada eta okupazioaren hasierako iraupena ez bada bost urtetik gorakoa, orduan, baimena behar da.
 - b) Okupazioa obra edo instalazio finkoekin egiten bada edo okupazioaren hasierako iraupena bost urtetik gorakoa bada, orduan, administrazio-emakida behar da.

4. No requiere el otorgamiento de los títulos previstos en este artículo el uso atribuido a los Departamentos o entidades que tengan adscritos los bienes o derechos.

Siempre que el acto o contrato le habilite para la ocupación del bien, tampoco precisa dichos títulos el uso u ocupación realizado por el contratista o tercero a quien corresponda dicho uso u ocupación como medio instrumental necesario para el cumplimiento de la función o realización de la actividad que, con arreglo al procedimiento exigido por la normativa, le ha sido encomendada. En este caso el uso u ocupación por el contratista o tercero requiere la firma por ambas partes del acta de puesta a disposición, que se formalizará tras el acto o contrato que contenga el encargo de realizar la función o actividad a la que el bien sirve de soporte.

5. Podrán otorgarse autorizaciones especiales para el uso parcial de los bienes a los que se refiere la letra b) del artículo 63 de la presente Norma Foral a personas físicas o entidades jurídicas, públicas o privadas, para el cumplimiento temporal de fines o funciones públicas o actividades de interés social o general. Dichas autorizaciones especiales podrán permitir la realización de obras o instalaciones fijas y no estarán sujetas al plazo establecido en el apartado 2 de este artículo.

CAPÍTULO II DE LAS DISPOSICIONES COMUNES SOBRE AUTORIZACIONES Y CONCESIONES

Artículo 66. Órgano competente para el otorgamiento de autorizaciones y concesiones

1. Corresponde a la entidad titular del bien tramitar y resolver los expedientes relativos a autorizaciones y concesiones administrativas.

2. En el caso de que la entidad titular del bien o derecho sea la Diputación Foral de Bizkaia, dicha competencia corresponde al titular del Departamento o entidad que tenga adscrito el bien y, en su defecto, al titular del Departamento que tenga las facultades de gestión de los bienes. En el caso de que la entidad titular del bien o derecho sea una entidad distinta del artículo 1.2 de la presente Norma Foral, la competencia corresponde al titular del órgano que determinen sus normas de creación, funcionamiento y organización y en su defecto quien ostente su representación legal.

3. En el caso de que la entidad que tiene adscrito el bien sea de naturaleza jurídico-privada, el otorgamiento de autorizaciones o concesiones demaniales corresponderá al Departamento o entidad de naturaleza jurídico-pública al que aquélla se encuentre vinculada o de la que dependa.

4. Ondasun edo eskubideak atxikita dituzten sailei edo erakundeei eratzikitzen zaien erabilerak ez du behar artikulu honetan jasotzen diren tituluak egilesterik.

Egintzak edo kontratuak ondasuna okupatzeko gaitzen bada, eta araudiak ezartzen duen prozeduraren arabera kontratistari edo hirugarrenari agindu zaion eginkizuna edo jarduera betetzeko beharrezko tresna gisa erabilerak edo okupazioa badagokio kontratista edo hirugarren hori, bada, orduan, kontratista edo hirugarren horrek egiten duen erabilerak edo okupazioak ez ditu arestian aipatu diren tituluak behar. Kasu horretan, kontratistak edo hirugarrenak egiten duen erabilerarako edo okupaziorako alde biek eskueran jartzeko akta izenpetu behar dute; akta hori ondasuna euskarri den eginkizun edo jarduera egiteko enkargua jasotzen duen egintza edo kontratua formalizatzean egingo da.

5. Foru arau honetako 63. artikuluko b) idatz-zatian aipatzen diren ondasunen erabilerak partzialerako baimen bereziak egiletsi ahal izango zaizkie pertsona fisikoei edo erakunde juridikoei, publikoei edo pribatuei, aldi baterako bete ditzaten helburu edo eginkizun publikoak edo gizarte-intereseko edo interes orokorreko jarduerak. Baimen bereziok aukera eman dezakete obra edo instalazio finkoak egiteko, eta ez dira artikulu honetako 2. paragrafoan ezartzen den epearen menpe egongo.

II. KAPITULUA BAIMENEN ETA EMAKIDEN GAINKO XEDAPEN ERKIDEAK

66. artikulua. Baimenak eta emakidak egilesterko organo eskuduna

1. Ondasunaren titularra den erakundeari dagokio administrazio-baimen eta —emakiden inguruko espedienteak izapidetzea eta ebatzea.

2. Ondasun edo eskubidearen titularra Bizkaiko Foru Aldundia bada, arestian aipatutako eskumena ondasuna atxikita duen saileko edo erakundeko titularrari dagokio, edo, horrelakorik ez badago, ondasunak kudeatzeko ahalmenak dituen saileko titularrari. Ondasun edo eskubidearen titularra den erakundea foru arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren beste erakundeetako bat bada, eskumena erakundeon sortze-, jarduera- eta antolamendu-arauek ezartzen duten organoko titularrari dagokio edo, horrelakorik ez badago, erakundearen legezko ordezkariari.

3. Ondasuna atxikita duen erakundea izaera juridiko pribatukoa bada, baimen edo emakida demanialak erakunde hori menpeko den edo lotuta dagoen sailak edo izaera juridiko pribatuko erakundeak egiletsi behar ditu.

4. La competencia relativa a las autorizaciones especiales a que se refiere el apartado 5 del artículo 65 cuando el beneficiario sea una entidad o persona jurídica de derecho privado o una organización internacional, corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia.

5. En todo caso, las resoluciones que otorguen, modifiquen o extingan autorizaciones o concesiones demaniales deberán ser comunicadas al Departamento competente en materia de patrimonio.

Artículo 67. Condiciones generales y pliego de condiciones particulares de autorizaciones y concesiones

1. La Diputación Foral, a propuesta del Departamento o entidad especialmente afectada, podrá aprobar condiciones generales para el otorgamiento de categorías determinadas de concesiones o autorizaciones, que deberán ser publicadas en el Boletín Oficial Bizkaia, y modelos-tipo de condiciones particulares de general aplicación.

2. Con sujeción, en su caso, a las condiciones generales y modelos-tipo de condiciones particulares, las concesiones y autorizaciones se ajustarán al pliego de condiciones particulares aprobado por el órgano competente para otorgar la concesión o autorización.

Quando la concesión o autorización afecte a bienes cuya titularidad corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, la aprobación del pliego de condiciones particulares será comunicada al Departamento competente en materia de patrimonio.

Se exceptúan de la obligación de previa aprobación del pliego de condiciones particulares las autorizaciones de uso no superior a treinta días, o para la organización de conferencias, seminarios, presentaciones u otros supuestos de carácter puntual u ocasional.

Artículo 68. Carácter y contenido de los acuerdos de autorización y concesión

1. Salvo disposición en contrario, las autorizaciones y concesiones demaniales son de otorgamiento discrecional por las entidades previstas en el artículo 1.2 de la presente Norma Foral sí bien dicho otorgamiento deberá realizarse conforme a los procedimientos y contenidos previstos en este Título. Se otorgarán para una finalidad concreta, con determinación de su objeto, duración y límites, sin que en ningún caso puedan otorgarse por tiempo indefinido, y llevarán anexas las facultades administrativas de inspección y vigilancia sobre los bienes que son su objeto, así como sobre las instalaciones o construcciones que pudieran existir.

4. 65. artikuluko 5. paragrafoan aipatzen diren baimen berezien inguruko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, onuraduna zuzenbide pribatuko erakunde edo pertsona juridiko bat edo nazioarteko erakunde bat bada.

5. Edonola ere, baimen edo emakida demanialak egilesteke, aldatzeko edo azkentzeko ebazpenak ondare arloan eskuduna den sailari jakinarazi behar zaizkio.

67. artikulua. Baimenen eta emakiden baldintza orokorrak eta baldintza berezien plegua

1. Foru Aldundiak, bereziki ukitutako sailak edo erakundeak proposatuta, baldintza bereziak onets ditzake emakiden edo baimenen kategoría jakin batzuk egilesteke, eta baldintza horiek Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratu behar dira; orobat, aplikazio orokorreko baldintza berezien eredu-tipoak ere onets ditzake Aldundiak.

2. Emakidak eta baimenak emakida eta baimena egilesteke eskuduna den organoak onetsitako baldintza berezien pleguari lotuko zaizkie, eta, hala badagokio, baldintza orokorreki eta baldintza berezien eredu-tipoeki lotuko zaizkie.

Emakidak edo baimenak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko ondasunak ukitzen baditu, ondare arloan eskuduna den sailari jakinarazi behar zaio baldintza berezien plegua onartu izana.

Hogeita hamar egunetik gorakoak ez diren erabilera-baimenen kasuan, ez da beharrezkoa aurretiaz onestea baldintza berezien plegua, ez eta hitzaldiak, mintegiak, aurkezpenak edo unean uneko beste kasu batzuetarako ere.

68. artikulua. Baimen- eta emakida-erabakien izaera eta edukia

1. Aurkakoa xedatzen ez bada, foru arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeek baimen eta emakida demanialen zuzentzerako egilespena egin dezakete, baina, edonola ere, egilespena titulu honetan zehazten diren prozedurei eta edukiei jarraiki egin behar da. Helburu zehatzerako egiletsiko dira, horien xedea, iraupena eta mugak zehaztu egin behar dira; ezin dira inola ere epe mugagaberako egiletsi. Emakida eta baimen horiek beren helburu diren ondasunen gaineko ikuskaritzako eta zaintzako ahalmenak dituzte erantsita, bai eta izan litezkeen instalazioen edo eraikuntzen gainekoak ere.

2. Las autorizaciones y concesiones podrán contemplar la imposición al titular de obligaciones accesorias tales como la adquisición de valores, la adopción y mantenimiento de determinados requisitos societarios, u otras de análoga naturaleza, cuando así se considere necesario por razones de interés público.

3. Sin perjuicio de los demás extremos que puedan incluir las condiciones generales o particulares, el acuerdo de autorización o concesión, expresamente o por remisión al pliego, incluirá al menos:

- a) El régimen de uso del bien o derecho.
- b) El régimen económico a que queda sujeta la autorización o concesión.
- c) La garantía a prestar, en su caso.
- d) La asunción de los gastos de conservación y mantenimiento, impuestos, tasas y demás tributos, así como el compromiso de utilizar el bien según su naturaleza y de entregarlo en el estado en que se recibe.
- e) El compromiso de previa obtención a su costa de cuantas licencias y permisos requiera el uso del bien o la actividad a realizar sobre el mismo.
- f) La asunción de la responsabilidad derivada de la ocupación, con mención en su caso, de la obligación de formalizar la oportuna póliza de seguro.
- g) La reserva por parte del cedente de la facultad de inspeccionar el bien objeto de autorización, para garantizar que el mismo es usado de acuerdo con los términos de la autorización.
- h) El plazo y régimen, en su caso, de prórroga y subrogación que, en todo caso, requerirá la previa autorización.
- i) Las causas de extinción.

Lo dispuesto en este precepto será de aplicación a las autorizaciones especiales de uso previstas en el apartado 5 del artículo 65 y a las previstas en el último párrafo del apartado 2 del artículo 67, en la medida en que sea procedente de acuerdo con sus características, objeto y finalidad.

2. Baimenean eta emakidan betebeharrak ezar dakizkioke titularrari, interes publikoko arrazoiak direla-eta beharrezko irizten bazaio; betebeharrak izan daitezke, esaterako: baloreen eskuraketa, sozietateen gaineko zenbait betekizun hartzea eta betetzea, edo antzeko izaera duten beste batzuk.

3. Baldintza orokorretan edo berezietan beste puntu batzuk ere ezar daitezkeen arren, baimen- edo emakidatutako erabakiak, beren-beregi edo plegura igorri, ondokoak jaso behar ditu gutxienez:

- a) Ondasunaren edo eskubidearen erabilera-araubidea.
- b) Baimena edo emakida arautzen duen ekonomi araubidea.
- c) Eman beharreko bermea, beharrezkoa bada.
- d) Artapen- eta mantentze-gastuen, zergen, tasen eta gainerako tributuen bereganatzea, bai eta ondasun horren izaeraren arabera erabiltzeko eta jasotzen den egoeran itzultzeko konpromisoa ere.
- e) Baimenaren edo emakidaren onuradunaren konpromisoa bere kontura lortzeko bai ondasuna erabiltzeko bai ondasun horren gainean egin beharreko jarduera egiteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak.
- f) Okupazioaren ondoriozko erantzukizunaren bereganatzea, eta, beharrezkoa bada, dagokion aseguru-poliza formalizatzeko nahitaezotasuna adieraziko da.
- g) Lagatzaileak beretzat gordetzea baimenaren helburu den ondasuna ikuskatzeko ahalmena, ondasuna baimenean ezartzen denaren arabera erabiltzen dela bermatze aldera.
- h) Hala denean, luzapenaren eta subrogazioaren epea eta araubidea; dena den horrek aurretiazko baimena behar du.
- i) Azkentzeko arrazoiak.

Artikulu honetan xedatzen dena 65. artikuluko 5. paragrafoan zehazten diren erabilerarako baimen bereziei eta 67. artikuluko 2. paragrafoko azken letraldean zehazten direnei aplikatuko zaie, baimen horien ezagutza, helburu eta xedearen arabera egoki den heinean.

Artículo 69. Régimen económico y garantías de autorizaciones y concesiones

1. Las concesiones podrán ser gratuitas, otorgarse con contraprestación o condición o estar sujetas a tasa por utilización de bienes de dominio público.

No estarán sujetas a la tasa cuando la utilización no lleve aparejada una utilidad económica para el concesionario o, aun existiendo dicha utilidad, la utilización comporte condiciones o contraprestaciones para el beneficiario que anulen o hagan irrelevante aquélla. Tal circunstancia se hará constar en los pliegos de condiciones o clausulado de la concesión.

Igual régimen económico será aplicable a las autorizaciones.

2. Al titular de autorizaciones o concesiones, cualquiera que sea el régimen económico que les resulte de aplicación, podrá exigírsele garantía, en la forma que se estime más adecuada, del uso del bien y de su reposición o reparación, o indemnización de daños, en caso de alteración. El cobro de los gastos generados, cuando excediese de la garantía prestada, podrá hacerse efectivo por la vía de apremio.

Artículo 70. Procedimiento para el otorgamiento en régimen de concurrencia

1. El procedimiento para el otorgamiento de autorizaciones y concesiones en régimen de concurrencia se iniciará de oficio, por propia iniciativa o a petición de persona interesada.

2. La iniciación del procedimiento en régimen de concurrencia, por propia iniciativa de la Administración otorgante, se realizará mediante convocatoria que se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia. Las personas interesadas dispondrán de un plazo de treinta días para presentar las correspondientes solicitudes.

3. La iniciación de oficio, a petición de persona interesada, requiere que quien realiza la petición presente una memoria explicativa de la conveniencia, oportunidad y demás circunstancias relativas a la ocupación propuesta. El órgano competente examinará la petición y la admitirá a trámite o la rechazará, cuando recaiga sobre bienes cuya titularidad corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia. La admisión a trámite o rechazo de la petición tiene carácter discrecional.

En el caso de admisión a trámite, se acordará el inicio del procedimiento y se podrá, por medio de anuncio público, invitar a otros posibles interesados. No mediando este acto de invitación, se dará publicidad a las solicitudes presentadas, a través de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia. En ambos casos, se abrirá un plazo de treinta días durante el cual podrán presentar otras solici-

69. artikulua. Baimenen eta emakiden ekonomi araubidea eta bermeak

1. Emakidak dohainekoak izan daitezke, kontraprestazioarekin edo baldintzarekin egiletsi daitezke eta jabari publikoko ondasunak erabiltzeagatiko tasari lotuta egon daitezke.

Emakidak ez dira tasari lotuta egongo erabilerak ez badakarte ekonomi erabilgarritasunik emakidadunarentzat, edo erabilgarritasun hori izan arren ere, erabilerak onuradunari sortzen dizkion baldintzek edo kontraprestazioek deuseztatu egiten badute edo garrantzirik gabe uzten badute erabilgarritasun hori. Egoera hori jaso egin behar da emakidaren baldintzen pleguan edo klausuletan.

Baimenei ere ekonomi araubide bera aplikatuko zaie.

